



Bertaratuak:

**Santiago Álvarez Folgueras jauna**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria HERRIKOA

**Ernesto Delas Villanueva jauna**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria SORTZEN

**Iñaki Berasategi Zurutuza jauna**

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria LAB

**Carmela Muñoz Ventura anderea**

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Ikarasleen ordezkaria FETE-UGT

**Camino Bueno Zamarbide anderea**

Representante de Directores y Directoras de centros docentes públicos/Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria

**Francisco José Flores Pérez jauna**

Representante de las asociaciones Empresariales/Enpresari elkarteen ordezkaria

**Estebe Petrizan Iriarte jauna**

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Pilar Elcarte Elcarte anderea**

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Alfredo Hoyuelos Planillo jauna**

Personalidad de reconocido prestigio/Aitortutako ospea duen pertsonalitatea

**Cristina Bayona Saez anderea**

Representante de las Universidades/Unibertsitateen ordezkaria UPNA

**Aurora Bernal Martínez de Soria anderea**

Representante de las Universidades /Unibertsitateen ordezkaria. Universidad de Navarra/Nafarroako Unibertsitatea

Iruñean, 2016ko ekainaren 28aren 17:15 direlarik, Eskola Kontseiluko egoitzan (Kale Nagusia, 56 – Ezpeleta Jauregia) Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko Osoko Bilkura biltzen da, Aitor Etxarte Berezibar Jaunaren lehendakariarekin, ondoan agertzen diren kideen presentziarekin, eta Fermin Casado Leoz Jn. Idazkari ofizialaren absentiarekin, eta bere ordezkari Esther Monterrubio kontseilukidea idazkari bezala, hurrengo gai-zerrendarekin:

1. Aurreko bileraren akta berraztertu eta, hala behar bada, onetsi.
2. Lehendakariaren informazio orokorra.
3. Kontseiluaren kontuen baieztapena, 2016ko lehenengo seihilekoa.
4. NHST 2015-2016.
5. Galde-eskeak



**Fernando Barainca Lagos jauna**

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen ordezkaria FSIE-SEPNA

**Jesús M<sup>a</sup> Ezponda Iradier jauna**

Representante de Directores y Directoras de centros docentes privados concertados/Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria

**Lourdes Larunbe Arretxe anderea**

Representante del Personal de Administración y Servicios de los centros Docentes/Ikastetxeetako Administrazioko eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria

**Ignacio M<sup>a</sup> Iraizoz Zubeldía jauna**

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra/Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE

**M<sup>a</sup> José Anaut Couso anderea**

Representante de las organizaciones sindicales/Sindikatuaren ordezkaria/UGT

**M<sup>a</sup> Luisa de Simón Caballero anderea**

Representante del Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-E)

**Juan Larraza Pérez-Salazar jauna**

Representante del alumnado de los niveles no universitarios de los centros privados de Navarra/ Unibertsitate aurreko hezkuntza pribatuaren ikasleen ordezkaria

**Amaia Zubieta Garciandia anderea**

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria STEE-EILAS

Bere absentzia desenkusatzan dute:

**Francisco Javier Pérez Cueva jauna**

Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria

**Jorge Lanchas Rivero jauna**

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra/Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE



**Sonia Cabrero del Amo anderea**

Representante de las Asociaciones que trabajan por la igualdad/Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteen ordezkaria

**Javier Albizu Sanz jauna**

Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria

**M<sup>a</sup> Soledad Garjón López anderea**

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria LAB

**Juan Ramón Elorz Domezáin jauna**

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Mikel Fernández de Quincoces**

**Martínez de Birgala jauna**

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Ignacio Toni Echeverría jauna**

Representante de las Personas con discapacidad de Navarra/Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen ordezkaria/ CORMIN

Ez ziren bertaratu:

**Josu Repáraz Leiza jauna**

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra-Federación de Ikastolas de Navarra/Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria-Nafarroako Ikastolen Elkarte

**Sergio Gómez Salvador jauna**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria CONCAPA

**José María Carrillo Álvarez jauna**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria HERRIKOA

**Pedro María Baile Torrea jauna**

Representantes de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/



Ikasleen Gurasoen Elkarte  
Federazioen ordezkaria CONCAPA  
**Miren Aranoa Astigarraga anderea**  
Representante del Parlamento de  
Navarra/Nafarroako Parlamentuaren  
ordezkaria (EH BILDU)  
**Josu Millán Bargodá jauna**  
Representante del alumnado de los  
niveles no universitarios de los centros  
públicos de Navarra/ Unibertsitate  
aurreko hezkuntza publikoaren ikasleen  
ordezkaria

Kontseilukideen justifikatutako absentzien berri ematen du Lehendakariak, besteak beste Fermín Casado, Kontseiluaren Idazkari titularrena, eta Esther Monterrubio kontseilukidea ordezkaturako duela saio honetan esaten du. Behin quoruma lortu ondoren, saioa hasten da.

### **1. Aurreko bileraren akta berraztertu eta, hala behar bada, onetsi.**

Lehendakariak ea 2016ko maiatzaren 30ean burututako Osoko Bilkuraren aktan jasotakoari eragozpenen bat adierazi nahi al duenik dagoen galdetzen du. Inork ez du eragozpenik jartzen eta ondorioz, baieztapenez onesten da.

### **2. Lehendakariaren informazio orokorra.**

Ondoren, aurreko bileratik burututako gaiak komentatzen ditu era labur eta zehatzean:

Haien artean “Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman” monografiaren aurkezpena daukagu, paperean eta digitalean argitaratua, hala nola Idea aldizkariaren azkeneko zenbakiaren aurkezpena, formatu digitalean, Iruñea, Tuteran eta Nafarroako Parlamentuan burututako 0-6 Jardunaldien ekarpenak biltzen dituenak.



Era berean udazkenean egingo diren hezkuntza berrikuntzaren inguruko jardunaldien prestaketaren inguruko informazioa ematen du. Hezkuntza Departamentuak egindako deialdiaren markoan aurkeztutako eta tutorizatutako proposamenak kontutan edukiko dira. Proposamen hauetako batzuk aukeratuko dira “Berrikuntza Proiektu”en jardunaldien corpusa izango direnak. Iraileko Kontseiluan egingo da zehaztasun gehiagoko proposamena, 2016-2017 ikasturteko egitasmoaren aurkezpenaren barruan, komentatzeko eta, egokitzat jotzen bada, garatzeko.

Ildo beretik, eta aurreko Osoko Bilkura ondoren, 2017ko udaberriko jardunaldiak definitzen ari dira. Hauek, landa eremuko eskola izango lukete eduki nagusi, gure erkidegoak duen egitura demografiko, zerbitzuzkoa eta eskolakoan eskola hauek daukaten garrantziagatik. Proposamena irailean ekarriko da guztion artean komentatu eta balioztatzeko. Beste informazioen artean, Lehendakariak komentatzen du ikastetxeetara bisitekin jarraituko dutela. Parte-hartu izan da, baita ere, Nafarroako Museoan burututako berrikuntza proiektuen aurkezpenean, eta Euskarabidearekin batera Euskararen plan estrategiakoaren oinarriak finkatzeko hasi den prozesuan parte-hartzen jarraitzen da.

Kontseiluaren egoitzan “Familien parte-hartzea Nafarroako Hezkuntza Sistematan” monografiaren egileekin egindako aurkezpena ere azpimarragarria da. Monografia web gunean dago eta deskargatu daiteke. Beste alde batetik, Nafarroako Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan banatzeko paperezko aleak ere egin ziren.

Azkenik, “Idea” aldizkaria, fase berri honetan, web-gunean formatu digitalean dagoela dio Lehendakariak. Berri nabarmena bezala bidali zen eta bertan sartu direnak Haur Hezkuntzako Jardunaldien gaiaren inguruko ekarpen garrantzitsuenak aurkituko dituzte. Material hau, baina ez bakarrik, urriaren lehenengo aste inguruan editatu eta argitaratu nahi den monografiaren oinarria izango da.

### **3. Kontseiluaren kontuen baieztapena, 2016ko lehenengo seihilekoa.**



Kontuen balantzea seihilean behin aurkeztu behar dela azaltzen du Lehendakariak, kide berrientzako bereziki. Kontuen kudeatzaile berezi batekin kudeatzen da (EDUGES) sarrera oso zehatz batzuekin. Hauek, batzutan, ez dira ulertzeko errazak.

Deialdiarekin batera bidalitako kontuen balantzean, gastuen desglosea agertzen zen 2. seihilekoaren itxieratik 2016ko ekainaren 20a arte. 2016ko 2. seihiletik gastu pendiente batzuk daude, ordaindu ezin izan direnak, eta ahal den bezain laister ordainduko direnak; Marina Mori eta Maddalena Tedeschiri dagozkien gastuak dira, 870€-koak, eta Diario de Navarra eta Diario de Noticiasen harpidetzak, 550 euro ingurukoa bakoitzak. Bai hitzaldiak eta baita harpidetzak ere, suposatzen du, lehen seihileko honetan ordaintzeke 1970€ daudela.

Era berean, Lehendakariak informatzen du 2016ko onetsitako aurrekontu globala 43.000€-koa zela, eta horregatik, eskuragarri geratzen dena, aurrekontu honekiko, 21.630 € da. Dagoen hondarra batuz, kudeaketa kontuan, 33.110€ da eskuragarri dagoen kantitatea.

Kontuak baieztapenez onesten dira.

#### **4. NHST 2015/2016.**

Lehendakariak NHST batzordeari egindako lana eskertzen dio. Bi bilera mota ezberdinak egin direla esaten du, batean, NHST eta datuen kudeaketarentzako ikuspuntu profesionalago eta objektiboago bat izateko baliagarri izan zitezkeen pertsonekin (bai bere lan funtzioagatik, baita bere Administrazioaren kokapenarengatik); bestean, Kontseilukide guztiei bidalitako testua definitzeko bilerak izan dira, NHST batzordearenak propioak. Mistoak izan diren lan bilerak, giro bikain eta oso interesgarrian garatu dira, eta denek asko ikasi dute bertan.

Lehendakariak batzordean aritu diren pertsonen lanarengatik emandako eskerrak azpimarratzen ditu, beraiengatik izan baita posible lan hau egitea.



Bidalitako testuak bi zati ditu:

Lehenengoak, bere lau edo bost epigrafe garrantzitsuenetan intentzio onen vademécum bat dauka, batez ere, hizkuntza motaren definizioa eta NHST motarena; bigarrena, konplexuagoa, NHSTaren edukiaren kudeaketa izan da, hau da, indizean oinarrian jarrita dagoena (deialdiarekin batera bidalita).

Dokumentuaren proposamenen zatian, batzordekide guztiek argi zeukaten oinarri batzuk zeuden. NHSTaren kudeaketaren hobekuntza da helburu garrantzitsu bat, eta horregatik orain dela bi hilabete NHTSan lanean ari dira, egonkorragoak izan daitezkeen edukiak planifikazio txantiloian, NHSTaren zati batzuk landuak izan daitezkeelako jada (2. atala, adibidez, orokorrean landu daitekeena jada). Beste atal batzuk ezin dira landu ez dagoelako informazioa momentu honetan.

Kezka nagusia NHST-ren kudeaketa ahal den argien, azkarren eta arinen izatea zela dio. Neurriak hartu dira ze erakunde eta ze pertsonak gehitu behar duten informazioa eta nola bildu.

Garrantzi handiko beste gai bat, hizkuntzaren era da eta erredakzio arauak. Azkeneko urteetan, NHSTan aldatutako proposamenen artean 300 baino gehiago hizkuntzazkoak dira. Ez da inongo arazorik egon erredakzio arauak adosteko.

Hirugarren atal bat datuei egiten die erreferentzia, batzordearen adituekin eztabaida sorrarazi zuen gaiak:

- datuen eguneratze maila “eguneratze maila altuena”;
- maila guztietan sexuzko banaketa;
- zatiketa zabalagoak eskaintzen saiatzea garrantzitsuagotzat jotzen ditugun datuetan. Honek, denboran, hausnarketa sakonago bat egitea ahalbidetuko du eta sendoagoak diren erabakiak hartzea ere.



Laugarren atala NHSTaren egiturari erreferentzia egiten dio. NHSTaren atal handien egitura mantentzen da, zabaltzeko helburuarekin aldaketa batzuk sartuz, 2. atalean, adibidez. Atal honek hezkuntzaren testuingurua biltzen jarraitzen du, alderdi sozioekonomikoak, demografikoak eta hezkuntzazkoak, eta aurreko bileretan komentatu zen moduan, hezkuntza testuinguruaren analisi osoa egiteko asmoarekin, soziokulturako gaiak jorratzen duen epigrafea. Maila demografiko, hezkuntzazko eta sozioekonomikoen informazioa, sakonduta eta zehatzagoa, aurkitu ahalko da.

3. atalean, Hezkuntzako baliabide materialak eta langileena, oinarrian egitura bera dauka, hiru epigrafe handiekin: hezkuntzaren finantziario publikoa, baliabide materialak eta langileak hezkuntza publikoan. Edukien ordenaren aldaketa txikiak sartzen dira, epigrafe batetik bestera aldatuz, edukien garapena koherenteagoa izatea saiatuz, baina eduki orokorrak berdin mantentzen dira, oinarrian.

4. atala da aldaketa gehienak jaso dituen atalak, eduki berriak edo epigrafeak sartuz, bere garrantziagatik maila handiagoa lortzen dutenek, epigrafeak izatera pasatuz. Atal hau, aurreko NHSTan bezala deitzen da: “Hezkuntza prozesuak eta politikak”.

Atal hau osatzen duten epigrafeek aurretik bidalitako dokumentazioan zehaztutako hamabiak dira. Bi lehenengoak jada NHSTan existitzen ziren bi epigrafeak dira. 4.3a epigrafe berria da “Inklusibitatea eta aniztasuna”, azken urte hauetako ikuspegiarekin egokiagoa eta ezberdinagoa ere. 4.4a ere aurreko NHSTan ere existitzen zen eta 4.5an “Genero berdintasuna” aurreko NHSTen edukiak birformulatzen dira, sakontasuna emanaz. “Kalitatea eta hobekuntza” atala ez da berria, baina aipatuak baina garatu gabe agertzen ziren kalitate hobekuntza sare ezberdinen gaietara garrantzi handiagoa eman behar zaie.

4.7 epigrafea eguneratzen da eta elkarbizitzari buruzko epigrafe berezi bat sortzen da, gero eta interes handiago duen gaia delako, eta gehiago kezkatzen diolako hezkuntza komunitateari. Beste berri bat, landa eremukoaren inguruan, landa eremuko eskolei buruzko azpiepigrafe bezala existitzen zen, baina Nafarroan landa





eremuko eskolei garrantzi handiago eman behar zaiela uste dugu. Beste epigrafe bat “Udala eta hezkuntza” izenarekin deitu da, Herri Administrazioa eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Elkarteak eskatuta.

4. atala bukatzeko, azkeneko bi epigrafeak, 4.11 “Parte-hartzea” eta 4.12 “Europar Batasuneko hezkuntza arazoak” birformulatzen dira, edukiak zabalduz. Parte-hartzean sarrera berriak ematen dira, mahai sektoriala bezala, gurasoen mahaiak, etab. Eta 4.12an Europar Batasuneko hezkuntza programak biltzen dira, programa hauekin dugun loturarekin batera.

Azkenik, 5. atala “Eskola sistemaren emaitzak” oinarrian egitura bera mantentzen du, ondoko epigrafeekin: hezkuntza sisteman sarrera, araututako sisteman aurreratzea, errendimendu emaitzak eta bereizketak eta ez ohiko sariak.

Lehendakariak zehazten du indize laburtuari buru hitz egin duela eta ez korreoz bidali zen osoari buruz.

Erakutsitako lana, batzordearen lanaren emaitza da, epigrafe batzuk zabaldu eta hobetu ziren azkeneko bileran, bereziki, 4. kapituluarenak, aldaketa gehiago sartu direlako eta bere edukien aniztasuna dela eta zailagoa izan da egituratzea.

Ondoren, Lehendakariak azaltzen du NHSTa era ezberdinean kudeatu behar dela, 15-16 memoria ia bukatuta dagoela aurreratzen du eta azkeneko xehetasunak uztailan prest egongo direla. Memoria proposamena bai Batzorde Iraunkorrari baita, ondoren, Osoko Bilkurari banatuko zaie, memoria urriak arte atzeratuz, NHSTan zentratzeko, denbora gutxian egin behar dena eta sakontasun handia daukanalako, epe guztiak aurreratzeko ideiarekin, irakurketa lasaiagoa izateko eta kide guztien ekarpenekin testua aberasteko. Horretarako, datu nahikoak dituzten atalak lantzen ari dira, behin-behineko eran, atalak era independentean tratatzeko helburuarekin. Ekintza honek ahalbidetuko du atal bat behin-behineko eran ixterakoan, irailean martxan jarriko diren batzordeei aurkeztu ahal izatea, tramitea asko arinduko da modu honetan eta abenduan lasaitasun handiagoarekin iritsiko da NHSTaren onarpenera.



Egindako lan interesgarriatik eskerrak berriro ematen dizkie batzordekideei. Emaizarekin poztasuna erakusten du eta urtero egin beharko den lana dela dio: berrikusi, begiratu zer falta den, zer dagoen soberan, nola hobetu, beharbada ez aurten egin den sakontasunarekin. Behin NHSTa onetsia, urtarrila-martxoan, bere hobekuntza analisia egitea komenigarria izango da.

Camino Buenok bileretako giro ona eta asko ikasi duela azpimarratzen du.

José María Iraizozek dio besteen ikuspuntua ezagutzea lan aberasgarria eta behar-beharrezkoa zela. Emaiza ikusteko gogoia dauka eta Lehendakariari eskerrak ematen dizkio.

Amaia Zubietaren ustez benetan interesgarria da kanpoko aholkularien parte-hartzea. Lehendakariak bezala, egin, analizatu eta ebaluatu beharreko tresna dela adierazten du. Horretarako, interesgarri izango litzateke, behin kontseilua bukatu ondoren, parte-hartu duten adituen feedbacka izatea, zertan hobe daitekeen, etab. ikusteko.

Lehendakariak adierazten du NHSTak ikasteko aukera ematen digula, landu eta kudeatzerakoan, karrera profesional garrantzitsudun pertsona asko daudela datuen erredakzio eta kudeaketarekin lotuta eta, zorionez, bere elkarlana izan dugula. Amaiak esaten zuen moduan, hurrengo urteetan, guk baino gehiago dakiten pertsonak alboan izaten jarraitu behar dugu. Helburua NHSTA argiagoa egitea da, erabilgarriagoa, eta pertsona guztientzat ulergarria dena testu soziala bezala.

## **5. Galde-eskeak.**

Camino Buenok dio bi agindu foralen (Oinarrizko LHren ordenazioarena eta Harrerarena) eztabaida eta onespena aurrera eramán zirela Kontseiluaren aurreko saioan, dagokion aktan agertzen den moduan. Bi kasutan ratioen beherapena eskatzen zuen aurkako zuzenketa bat aurkeztu zen. Aktan agertzen den moduan, zuzenketa aldeko 17 botoekin onetsi egin zen, 5 aurkako eta 5 abstentzio. Era berean, Kontseilua kontsultazko organo bat izan arren, Agindu Forala azalpenik gabe



argitaratzea egoera horri buruzko azalpenik egin gabe, zur eta lur uzten diola. Ondoren, ekintza hau komentatu zuen Departamentuko pertsona batekin, eta LH ikastetxeei azalpenik eman ez izanak, eta honek komentario bat egin zion irizpena onetsia izan zenez, Agindu Forala ia zegoen moduan tramitatu ahal zela.

Irizpen baten alde edo aurka bozkatzea zer esan nahi duen azaltzea, momentu honetan edo hurrengo ikasturteko lehenengo Kontseiluan eskatzen du Camino Buenok. Bere ulertzeko era da irizpen bat bozkatzen denean, ez dela araudi proposamena bakarrik bozkatzen, baizik eta proposamen hori gehi Kontseilutik onetsiak izan diren zuzenketak. Orduan, hau horrela bada, ezin da ulertu irizpenaren alde bozkatzea, ondoren irizpentzen baita zuzenketen onespenerari edo ez. Ez du berehalako erantzun bat nahi; galdera hau planteatu nahi badu, argitzeko da eta irizpen bat bozkatzen ari garen momentuan jakin dezagun proposamen birjinaren gainean edota proposamenak gehi Kontseilutik onetsitako zuzenketen gainean bozkatzen ari garen.

Lehendakariak hurrengo Kontseiluan argitzea proposatzen du.

Santiago Álvarezek dio Iraunkorrean ordezkartzaren gaia jorratu zela eta NHSTan ordezkartza batzorde ezberdinen jardueraren konstantzia ematea adostu zela. Hau dena, parte-hartzeari buruzko Nafar gobernuak prestatzen ari dituen batzordeetan parte-hartzeko Eskola Kontseiluak egindako gonbidapena dela eta. Gurasoen mahaien deialdiaren bitartez familiek legalki duten biltzeko eskubidea eta betebeharra ere aipatu zen han. Alde batetik, hilabetean behin gurasoen mahaia bildu behar duela esaten duen araudiaren betetze zorrotza eskatzen da, baina legealdi urte batean ez da behin ere deitu. Esatariaren ustez, hezkuntza kontuak tratatu daitezkeen forua hori dela, gero Eskola Kontseilura eraman daitezkeenak edo ez, familiei dagokien gauzak, hala nola, iraileko azterketak ekainera pasatzea, eta ikasleek neurri hau era positiboan erabili ahal izaten laguntzeko ekarpenak egitea.

Lehendakariak parte-hartzea onartzen du eta ekintza hau iraunkorran komentatu zela dio, eta horregatik sortu izan da 4.11 epigrafea, Parte-hartzeari



buruzkoa. Honen barruan, Administrazio eta hezkuntza eremuen arteko mahai eta topagunei erreferentzia egiten saiatuko da.

Amaia Zubietak NHSTaren definizio lanean izan zuen kezka adierazten du. Eragile ezberdinek hezkuntza sisteman “parte-hartze”ko aukera islatzeko kezka, alegia, eta honetarako, bere tokia izan zezan bilatu egin zen. Era berean, hurrengo ikasturterako iraileko azterketen ekainera aldatzearekin parte-hartzeko aukera hau galdu dela islatu nahi du, Kontseilura eta beste organoetara ekarri behar izan zen gaia dena. Kontseiluan aurkeztu izatearen garrantzia azaltzen du, ikasle, familia, irakasle, Administrazio, sare publikoa eta itundutakoaren ordezkatzeko organoa izateagatik. Estamentu ezberdinen iritzia biltzeko eta eztabaida gaia bezala aurkezteko aukera ona zen.

Parte-hartze organoak aktibatzearen garrantzia zehazten du eta horregatik, NHSTan parte-hartze aukera guztiak islatzea oso garrantzitsua da. Gainera, horretarako araudi zehatz bat existitzen da. Garrantzizkoa da ez bakarrik familiei informatzea, baizik eta haien ekarpenak biltzea; hau da, informazio norabide bakarreko soilik ez izatea.

Camino Buenok galdetzen du ea NHSTan lekua ba al daukan Lanbide Heziketako Nafarroako Kontseilua eta UG Tk gogorarazten du, baita ere, Ikastetxe Integratuen Kontseilu Sozialen existentzia.

Eta landu beharreko gai gehiagorik gabe, Osoko Bilkuran bertaratutako kideen parte-hartzea eskertzen du Lehendakariak eta 18:30etan saioari amaiera ematen dio.